

<p>Hamis taldearen sarraskiak eragindako 1.300 biktimen artetik zeu aukeratu zaitut, Shani Louk, zeure gaztetasunagatik; eta bizitzeko gogoa, errugabetasuna, jendetasuna... barreiatzen dituzulako. Hippy belaunaldiaren antzinako leloa ekarri didazu gogora: "Egin maitasuna, eta ez gerra".</p>	<p>Out of the 1,300 victims of the massacre perpetrated by Hamas, I have chosen you, Shani Louk, because of your youth, and because you radiate the desire to live, innocence, gentleness... You're like the old slogan of the hippy generation: "Make love, not war."</p>
<p>Ez dut ikusten zer arrazoi pertsonal izan ditzakeen inork zuri min emateko, edo, are gehiago, zuri halako heriotza krudel eta bortitza emateko.</p>	<p>I don't see what personal reasons anyone can have to hurt you or even to give you such a cruel and violent death.</p>
<p>Horregatik aukeratu zaitut Hamasek eraildako 1.300 pertsonen artetik. Baina beste asko ere aukera nitzakeen: aitona-amonak, haurrak, nerabeak, gurasoak...</p>	<p>That is why I have elected you as the representative of the 1,300 people killed by Hamas. But I could have chosen others: grandmothers, children, teenagers, fathers and mothers...</p>
<p>Zibilak hiltzea onartezina da. Zibilak sakratuak dira. Eta, egoera edozein dela ere, zibilek beti, beti dute norabide berri bati ekiteko eskubidea; eta ziur aski horrexek bulkatzen gaitu kulturen, hizkuntzen eta pentsamoldeen arragoak sortzera. Bakearen bideek beti eramaten dute merezi duen leku batera. Gerraren bideek, ordea, hilerrira bakarrik eramaten dute. Eta uste dut, Shani Louk, zuk zeuk ere horrela sentitzen zenuela.</p>	<p>The killing of civilians is unacceptable. Civilians are sacred. And, whatever the situation is, they are always entitled to embark on a new course that is likely to lead them into a melting pot of cultures, languages and mentalities. The paths of peace always lead to a place that is worth it. But the paths of war only lead to... the cemetery. And I think, Shani Louk, that you felt the same way too.</p>
<p>Bai, badakit "erraza" dela bakeaz hitz egitea. Baina, zein da beste aukera? Kontzentrazio-esparruak? Sarraskiak? Apartheid-a? Erbestaldi jendetsuak? Deportazioak? Hiltzea, norberaren kultura beste batenarekin "kutsatzen" permititu baino lehen?</p>	<p>Yes, I know it's "easy" to talk about peace. But what is the alternative? The concentration camps? The extermination? Apartheid? The mass exile? Deportation? To die, rather than allow one's culture to be "contaminated" by another?</p>
<p>Ikuspegi zabala behar da, bai batzuen aldetik bai besteen aldetik. Baina, batez ere, menderatzaileen aldetik. Eta, egia esan, Shani Louk, hori da arazoa edota arazoetako bat: sionismoak 60 urtetik gora darama euliak kanoikadaz hiltzen.</p>	<p>We need a high-mindedness on the part of all the groups involved. But, above all, on the part of the dominators. And, actually, Shani Louk, that's the problem or one of the problems: For more than 60 years, Zionism has made an unacceptable use of force.</p>

<p>Oraintxe bertan, Shani Louk, sionismoak lurperatuta zaude (zu eta gainerako 1.300 biktima israeldarrak) gorpu palestinar errugabeez osatutako mendi baten azpian eta lurrarekin berdindurik geratu den Gazako hondakinen azpian. 100.000 palestinar baino gehiago hilda, zaurituta edo desagertuta; 3 eraikinetatik 1 suntsituta edo larri kaltetuta...</p>	<p>Right now, Shani Louk, Zionism has buried you and the rest of the 1,300 Israeli victims under a mountain of innocent Palestinian corpses and under the rubble of a totally devastated Gaza. More than 100,000 Palestinians killed, injured or missing, 1 in 3 buildings destroyed or damaged...</p>
<p>Uste dut, Shani Louk, birritan hil zaituztela: lehen aldian, Hamaseko fanatikoek hil zaituzte; eta bigarren aldian, Israel gobernatzen duten fanatikoek.</p>	<p>I believe, Shani Lou, that you have been killed twice: the first time, by Hamas fanatics; and the second time, by the fanatics who rule Israel.</p>
<p>Ni ez naiz fededuna. Baina mendebaldeko eta ekialdeko erlijioen sorlekuan, ez dut uste soberan dagoenik zera esatea: "Bakea lurrean, borondate oneko gizonei eta emakumei".</p>	<p>I'm not a religious person. But in the cradle of Western and Eastern religions, I do not think it is too much to say this: "Peace on earth for men and women of good will".</p>
<p>Eta zu, Shani, uste dut borondate oneko pertsona zinela. Ez zenuen inor hil nahi; dantzatu besterik ez zenuen nahi.</p>	<p>And you, Shani, I think you were a person of good will. You didn't want to kill anyone, you just wanted to dance.</p>
<p>Goian bego zure arima, Shani Louk.</p>	<p>Rest in peace, Shani Louk.</p>

